

EUSKARA

IRAILA > URRIA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO



gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao

Komisario Berriak

Mario Paniego

Espacio público(itari)o

Azkuna Zentroak **Mario Paniegoren** (Bilbo, 1978) *Espacio publicitario* (*espacio público / espacio publicitario*) aukeratu du, komisariotza sustatzeko eta artearen esparruko profesional berrien sorkuntza eta sendotzea bultzatzeko xedea duen Komisario Berriak programaren barruan.

Mario Paniegoren erakusketa-proiektuak inguruneko publizitatearen presentzian eta hirietako eguneroko bizitzan sortzen duen zaratan jartzen du arreta; artistak dioenez,

«espazio publikoaren eta pertsonalaren parte handi batez gabetzen gaitu».

Espacio publicitario (*espacio público / espacio publicitario*) obra izan da deialdira aurkeztutako 18 proposamenen artean aukeratua, eta publizitateak gure bizitzetan eta, batez ere, espazio publikoan duen indarrari buruzko berrazterketa proposatzen du. Artista bisualak adierazi bezala, proiektu hau garatzeko interesa sortu zion «ikusetak azken urteetan Bilbon nola ugaritu den



publizitatea espazio publikoetan eta nola, aldiz, munduko beste hiri batzuetan murriztuz joan den, herri-ekimenei eta udal arautegiei esker».

Artistak proposatzen du «gizarteak berrikustea publizitateak gure bizitzetan eta, bereziki, espazio publikoan hartu duen negusitasuna». Hiru ataletan egituratuta dago. Lehen atalean, azterketarako kasu gisa hartu ditu espazio publikoan publizitatearen erabilera murriztu duten munduko zenbait hiri, eta erakutsi ditu ekimen horien nondik norakoak, haien garapena eta ezarpena. Bigarreanean, ezagutzera emango du beren proposamenak hedatzeko publizitate euskarriak erabiliz nahiz espazio publikoa gizarte-gogoeta sortzeko baliatuz gai hau

lantzen diharduten mundu osoko hainbat talde eta artistaren jarduera artistikoa, aktibista.

Azken atalean, proiektuak atea zabaltzen dio herritarrek publizitateak ingurunean duen presentzian esku hartzeko. Izan ikastetxeen bidez, zeinari gonbita egiten baitzaie gai hau erabiltzeko publizitateko tresnak berak erabiliz; izan beste publiko-komunitate batzuekiko bitartekaritzaren bidez, haiei aukera emanez askotariko dinamika eta talleren bidez gaiari buruzko beren kezak eta ikuspegiak adierazteko.



 mariopaniego.com

////////////////////////////////////
MARIO PANIEGO (Bilbo, 1978).
Artista kontzeptuala eta bisuala da. Haren ustez, artea bizitzeko aitzakia bat da, eta mundua eta bere burua ezagutzeko modu bat. Lantzen duen proiektu berri bakoitzean esperimintatzea eta ikastea maite du, eta baliabide desberdinak erabiltzen ditu, proiektuaren izaera aintzat hartuta. Artistak arreta bereziaz aukeratzen ditu bere sorkuntzetan erabiltzeko osagai materialak eta kontzeptualak, eta arreta handia ematen dio, halaber, bere lan artistikoa bizitzan integratzeari, artearen esparrutik haratago joz. Arte Ederretako lizentzia eskuratu zuten University of the West

of England Unibertsitatean, eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non eskuratu baitzuen Ikasketa Aurreratuen Diploma (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketa Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko Unibertsitatea) egin zituen. Hainbat herrialdeetan aurkeztu ditu lanak. Aldi berean, eskolak eman ditu unibertsitatean, eta beste lanbide batzuetan aritu da.

////////////////////////////////////

Komisario Berriak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Azkuna Zentroaren (Bilbo), Artiumen (Gasteiz) eta Tabakaleraren (Donostia) arteko lankidetzaproiektua da, eta komisariatuzaren praktika euskal testuinguruan garatzea eta profesional berriak sortzea du helburu.

EUSKARA

AZAROA > ABENDUA 2020



Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO



Mario Paniego

Espacio públic(itari)o

Komisario Berriak

«GAUR EGUN PUBLIZITATEA
HAIN DAGO HEDATUTA, EZEN
EZINEZKOA BAITA EGUNEROKO
BIZITZAN SORTZEN DUEN
ZARATATIK URRUNTZEA.
ESPAZIO PUBLIKO ETA
PERTSONALAREN ZATI HANDI
BAT KENTZEN DIGU. ESTIMULUZ
BETETZEN GAITU ETA GEURE
BURUAZ HUSTEN». **MARIO
PANIEGO**

espacio
públic**itario**

Mario Paniego artista bisual eta kontzeptualak *Espacio publicitario* (*espacio público / espacio publicitario*) proiektua aurkeztu du *Komisario Berriak* programaren esparruan, hau da, komisariatza egiten laguntzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzeko programan.

Erakusketa-lan honek publizitateak gure bizitzan eta, bereziki, eremu publikoan izan duen gorakadaren azterketa proposatzen du. Artistak azaltzen duenez, proiektu hau garatzeko interesa sortu zitzaion «ikustean azken urteetan Bilbon nola ugaritu den publizitatea espazio publikoetan eta nola, aldiz, munduko beste hiri batzuetan murriztuz joan den, herri-ekimenei eta udal-arautegeiei esker».

Zentzu horretan, *Espacio públic(itario)* proiektuak munduko hiri batzuk hartzen ditu aztergai, eremu publikoan publizitate-erabilera hori murriztu baitute eta ikusgarritasuna eman baitiote gai honen inguruan lan egiten duten nazioarteko kolektibo eta artista batzuen jarduera artistikoari eta aktibistari, herritarren artean hausnarketa sortzeko helburuarekin: beharrezkoa al da publizitatea eremu publikoan?

Gai horren inguruan eraikitzen da Kulturen Atarian izango den erakusketaren diskurtsoa, gero Zentrotik hainbat euskarritan zabalduko dena, abendutik aurrera.

////////////////////////////////////

2020ko abenduak 3 > 2021eko urtarrilak 31

Kulturen Ataria
Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 mariopaniego.com



MARIO PANIEGO Bilbo, (1978). Arte Ederretako lizentzia lortu zuen University

of the West of England-en, eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratu baitzuen (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketa Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko unibertsitatea) egin zituen.

EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2021



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea


ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA
ABE. 3 2020 > URT. 31 2021

Mario Paniego

Espacio público(itari)o

Komisario Berriak

ESPACIO PÚBLIC(ITARI)O LANAK
HAUSNARKETA KRITIKOA ETA
ERAIKITZAILEA PROPOSATZEN
DU, PUBLIZITATEAK
ESPazio PUBLIKOAN DUEN
PRESENTZIARI ETA HIRIKO
BIZITZA SOZIALEAN DUEN
ERAGINARI BURUZ



Mario Paniegok publizitateak eremu publikoan duen eragina berrikustea proposatzen du, urtarrilaren 31ra bitartean Kulturen Atarian ikusgai egongo den *Espacio público(itari) o* erakusketaren bidez.

Komisariotza bultzatzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzak duen **Komisario Berriak** programaren esparruan, Mario Paniegok gonbit egiten digu gogoeta egitera, gaur egun publizitatea zenbateraino dagoen hedatuta, «non ezinezkoa baita eguneroko bizitzan sortzen duen zaratatik urruntzea. Espazio publikoan eta pertsonalaren zati handi bat kentzen digu. Estimuluz betetzen gaitu eta geure buruaz husten», adierazi du.

Proiektu honen bidez, Mario Paniegok erakusten ditu São Paulo, Wrocław eta Grenoble hirietako eremu publikoan publizitatearen erabilera murrizteko abian jarri diren ekimenak, baita nola ezarri diren ere.

Bestetik, erakusketak biltzen ditu gai honen inguruan lan egiten duten **Laura Marte**, **Jason Eppink**, **Maidor López**, **Tony de Marco**, **Dobro** eta **Vermibus** nazioarteko kolektiboan eta artisten jarduera artistikoa eta aktibista, publizitate-euskarriak erabili baitituzte beren proposamenetarako edota eremu publikoa gogoeta soziala sortzeko. Erakusketa osatze aldera, **Irene Cuesta del Cura** eta **Eder Gutiérrezen** piezak izango dira ikusgai. Pieza horiek EHUKo Arte Ederretako eta IED KUNSTHALeko ikasleei irekitako deialdiaren bidez hautatu dira, proiektuan parte hartzeko.

Espacio público(itari) o erakusketa-proiektuaren barruan, Mario Paniegok joan den azaroaren 27an, Black Fridayrekin batera, ekintza bat egin zuen Bilboko kaleetan eta Azkuna Zentroan, eta pantaila batzuetatik publizitatea hustea sustatu zuen, Vermibus artistak 2014az geroztik bultzatzen duen bezala, NOADDAY ekimenaren bidez, eta Buy Nothing Day mugimenduarekin bat etorritz.



MARIO PANIEGO Bilbo, 1978). Arte Ederretako lizentzia lortu zuen University of the West of England-en,

eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratu baitzuen (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketa Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko unibertsitatea) egin zituen.



2020ko abenduak 3 > 2021eko urtarrilak 31

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik



Mahai-ingurua

Espacio público(itari) o

Urtarrilak 20, asteazkena

18:00

Mediateka. TK202

Sarrera dohainik,

azkunazentroa.eus webgunean izena eman ondoren

Parte hartzaileak:

- **Pablo Vilá.** Comunitac-eko CEO-a
- **Tomás del Hierro.** Bilboko Udaleko Espazio Publikoaren arloko zuzendaria
- **Karmele Herranz Pascual.** Gizarte eta Ingurumen Psikologian doktorea eta Hiri Konforteko ikertzaile espezialista TECNALIA Research and Innovation-en.
- **Ula Iruetagoiena.** Arkitektoa eta EHUKo irakaslea



 mariopaniego.com